

# "GALDU" TXAKURRA DALA-TA

Zubiri'tar Iñaki jaunaren liburu au oso atsegiñez irakurri dot asieratik azkeneragiño. Pozik irakurriko neukez beti onelako eleberri politak, eta Olazar'tar Martin jaunari be atsegingarri izan yako (ikus ZER, 30'garren zenbakia, 3'gn. orrialdea).

Baiña liburuaren erizpidea egi-tean, auxe diño Olazar'ek: «Joske-ran be ikututxu batzuk egingo geunskioz, esaterako beste baten berbak aitatzean «san eban Motxo'k» barik «Motxo'k esan eban» eta olakoak idazten diranean».

Alan be, era biak erabilli daite-kez, esaerearen esanaia zein dan jakiñez gero. Baiña ori jakiteko, aurretiko esanaldia (frasea) bear da jakin: «esan eban Motxo'k» esanda bakarrik, ezin esan daike-zu zuzen ala oker dagoanik. Emen gaia labur-labur:

*Era bata:* «Zoaz ortik, esan eban Motxo'k»; «etxera joan dai-tela esan eban Motxo'k». Onelako esaeretan zuzen be zuzen dago esanaldia: berba indarduna (inqui-rido) «zoaz ortik» eta «joan daite-la» dira; beraz, aditz nagusiaren aurre-aurrean ezarri bear.

*Beste erea:* «Zoaz ortik, Mo-txo'k esan eban». Emen, barriz, berba indarduna «Motxo'k» itza da. Azken-era onetan, *Motxo* da «zoaz ortik» esan ebana, *Motxo*, eta ez Peru, Txomin, Aitor, ez beste iñor, *Motxo* baiño. Eta orre-gaitik, «Motxo'k» itza jarri bear aditz nagusiaren aurre-aurrean, berba indarduna da-ta. Ona emen beste adibide bat: «Benetan dirau-tsuet —erantzun eban Jesus'ek— ...» Esanaldi au ez leuke iñok esan-go beste onetara: «Benetan dirau-tsuet —Jesus'ek esan eban—...».

Orregaitik, ba, barriro esan: «esna eban Motxo'k» edo «Motxo'k esan eban» izentaturik bakarrik, ezin esan daiteke zuzen ala oker dagoanik: esanaldi *osoa* agertu bear da.

Onelako esanaldiak ainbat da-toz Ebanjelioetan; orrexegaitik izan dot nai puntu ori zelanbait argitzea.

Gai onen aurretik, beste puntu bi be aitatzen dauz Olazar jaunak, baiña ez dau adibiderik (ejenplu-rik) jarten. «Y naikoa ugari» era-biltzen dauala be da-diño; ez dot uste *yat*, *yako*, *yake*, *yoian*, *yoia-zala* ta orreilakoetan izan ezik era-biltzen dauanik.

Onenbestez, naikoa. Eta zorio-nak Zubiri adiskideari.

KEREXETA

## JULENE AZPEITIA (Arritokieta)

Yo maestra,  
a veces olvido  
las palabras  
y solo escribo

AMOR  
en el tablero.

*María Elena Quintero.*

*Julene Azpeitia. Irakasle euskalduna, benetako gogo sendoz ta erritar senez igaro zan, erakutsi ederrak emonez azaldurik euskereaganako maitasuna.*

*Irakasle argia. Zumaiarra sorkunez. Euskerearen aldezle bioztun ta kutuna; larogei ta amabi urte luze, astunez, erroturiko zugatz goilari ta bakuna.*

«Arritokieta» andra zabal, etxe zalea: ilbarri dogun aberkide ta idazlea, emakume itxarokor, apal, dotorea..., kristau doaitasunezko ekanduz betea.

Ainbat urteren buruz umeak eskolatuz olbaltzetan zenbakiak ta, Euskalerraren

*arduratasunez gogoak, biotzak argituz, ta aldibera, azi ona erein ondoren...*

*Ta, ixilik aldegin badausku be... Bai, zelan zelan aztu aren izena ta zeintasuna, bizi-zear irakatsiz, idatziz, ainbat lan iakingarri ain oparo eskeiñi euskuna?*

*Maitetasunezko irakasbide apalak —ipuñ, olerki ta idazlan argigarriak— amets eztiz beteriko berbagai zabalak, euskal alorrera gogo betez ekarriak.*

*Argi-izpi eredugarri ta bizi-biziak, euskerearen sendabidezko itxaropenez altxorturiko zillar, urregorriteriak, erriari opalduak benetako maitasunez.*

*Biotz aundiko «maistra» ori, olerkariak argira dakar, bizi dedin emen, betikoz, guk be Ari iarrantuz, gogo ta asmo sendoz, aurkitu daiguzan urrezko ari barriak.*

Muniategi'tar Sabin